



Apirila eta maiatzean Euskal Etxeak antolatutako Literaldiaren 3. edizioa egiten ari gara Katalunian euskal literatura sustatzeko eta mundu guztiarrenagana gerturatzeko, aurren, euskal emakumeek egindako literaturari arreta berezia esakini nahi izan diogularik: (“Emakumeen ahotsak/ Veus de dona”).

Gero eta garatuago dagoen literaturaren baitan, emakumearen ahotsa geroz eta garrantzia handiagoa hartzen ari da eta bere izakera propioa garatzen ari da; horregatik, guk geure hiriko ikusleei iritsiarazi nahi izan diegu. Edonola ere, edizio honetan pisu handiena emakumezkoek badute ere, zenbait gizezkoen proposamenak ere izango ditugu ikusgai. Aurtengo Literaldia apirilaren 20tik maiatzaren 18^a bitarte izango da.

“07ko Literaldia” Euskal Etxea, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa eta Bartzelonako Unibertsitateak elkarlanean antolatutako ekimena da.

Programazioa:

Leire Bilbao:

Leire Bilbaoren musika eta poesia emanaldia. (Literaldia 07) Apirilaren 20an, ostiralarekin, 20..00ean Euskal Etxean.

“Ezkatak”:

Emanaldiak modu ederrean batu zituen musika eta poesia, aldika lasai eta aldika sakon, batik bat Domentx-en bibolinaren lanari eta kantatutako eta errezitatutako olerkien arteko orekari esker.

Sant Jordi eguna

Gure postuan Koldo Izagirre idazlea aritu zen liburuak sinatzen.

Aukera paregabea izan zen Bartzelonako hiritarrek gure kulturari dioten atxikimendua beste behin baieztatzeko.

Koldo Izagirre

Apirilaren 24an, asteartearekin, Euskal Etxean

Koldo Izagirre idazle ezagunak bere “Nik ere Germinal! Egin gura nuen aldarrri” (1998, Susa), liburuaren katalanezko itzulpena aurkeztu zigun: “Jo també haguera volgut cridar Germinal!” (Virus, 2006).

Jon Elordiren sarrerarekin, aurkezpenean eleberriko protagonistaren istorioaz eta idazleak berak liburuaren dokumentazio fasean bizitako “istorio paraleloa”-z aritu zitzaigun Koldo.

Iratxe Retolaza

Apirilaren 26an, ostegunarekin, Euskal Etxean

Unibertsitateko irakasle, literatur kritikari eta literaturaren teoriar aditua den Iratxe Retolazak “Emakumearen ahotsak euskal literaturan” hitzaldia eskaini zigun.

Hitzaldi honetan, Literaldiaren gai nagusia modu bikainean jorratu zuen hizlariak, argudio sakonekin, eta gai honen inguruan duen jakintza agerian utziz.

Monologo gaua

Apirilaren 28an, larunbatearekin, Euskal Etxean

Egoitz Lasa eta Aitor Larrañagak hitzak eta marrazkiak erabili zituzten beren sormena azalertzeko. Istorio berriak edo euskal usadioko istorio zahar eguneratuak beren gatz eta jakinduriarekin eskaini zizkiguten. Berriako karikatura egilea den Aitorren marrazkiek azkar eta modu originalean osatzen zituzten Egoitzek kontatu eta antzeztutako istorioak.

Bestalde, Sergi Garcíaren bat-batekotasunak entzuleak bereganatu zituen, beste behin, sorpresaz, freskotasunez eta ironiaz beteriko istorioekin:

Maria Errauskin izateari utzi nahi dioten Maria Errauskinekin, “birtutea”, “nagikeria”, edo “maitasuna”-ren moduko kontuetan rola trukatzaren pasadi-

zoekin. Barre algaretan lehertzeko moduko istorioak guztiak, baina gizatasun eta itzaropenez jantziak.

Iban Zaldúa & Koruko Heras

Maiatzaren 4an, ostiralarekin, Euskal Etxean

“Sei ipuin eta zazpi pieza”

Iban Zalduak bere obra zabaletik hautatutako lanekin errezitaldia eman zuen. Koruko Heras pianoan lagun, bere narrazio laburrak modu koherentean lotuta aurkeztu zituen, hain berezko dituen ironia, kritika eta probokazioa erabiliz.

Miren Agur Meabe

Maiatzaren 9an, asteazkenarekin, Euskal Etxean 20:00etan

Hitzaldia-irakurketa: POETA BAT AZAL BILA / POETA BUSCA PIEL

Lekeitioko idazle Miren Agur Meaberen lanean poesia azpimarragarria da. “Azalaren Kodea” liburuarekin 2000ko kritika saria lortu zuen. Baina, batez ere, bere narrazio eta haurrentzako ipuinak dira aipagarriak.

Bere literatur munduaren ikuspegiaren inguruan hitz egingo digu, baita haurrentzako literaturaz ere, euskarazko, katalanezko eta gaztelazko poemen irakurketarekin tartekatuta.

Julen Gavía eta Txuma Murugarren

Maiatzaren 11n, ostiralarekin, Euskal Etxean 20:00etan

Julen Gavía eta Txuma Murugarren elkartu ditugu lan berezi bat aurkeztu diezaguten. “Matilde maitatzeko moduak” ikuskizunak musika eta literatura uztartzen ditu. Julenek, idazleak, Txumaren hamar kanturekin homitutako istorioa kontatuko digu, eta musika eta hitzek elkar kiribilduko dute. Gabiriaren istorioek azaltzen ez dutena Murugarrenen kantuek azalduko dute, eta alderantziz.

Bertso Afaría

Maiatzaren 18an, ostiralarekin, Euskal Etxean 21:30ean

lazko arrakasta ikusita, aurren berriro ere bertso afaría egitea erabaki dugu. Oraingoan, Hamaika Bertute ekimeneko bertsolariak arituko dira entzuleen belarriak eta bihotzak gozarazten.

Gainera, Uxue Alberdik 19:30ean “Aulki bat elurretan” bere liburuaren aurpepena egingo du Euskal Etxean.

Ikusgai dago Euskal Etxean Korrika Bartzelonan izan denaren berri iruditan ematen duen argazki erakusketa.

2007ko maiatza

BERRI ZALEA

Euskal Etxea Barcelona

Per Qualsevol suggeriment a aquest butlleti podeu escriure a : barcelona@euskaletxeak.org
Placeta Montcada 1- 3 Entrada per Arc de Sant Vicenç
Tlf:93 310 22 00 Fax 93 268 40 80
barcelona@euskaletxeak.org

<http://www.euskaletxeak.org>
<http://blog.euskaletxeak.org>



“Festa basca a Granollers”

Gero eta gehiago dira Katalunian Euskal Etxearekin elkarlanean eta euskal kultura ardatz ekitaldiak antolatzen ditzuzten elkarteak.

Horren adibide izan zen “Festa Basca a Granollers” ekimena. GRA, Equipment Juvenil de Granollers eta Sagardi-rekin batera antolatua, apirilaren 21ean txalaparta, dantzak, pintxo eta edari dastaketa eta Ene Bada taldearen kontzertua izan ziren.

Euskal kultura eta gizartearen gaineko aste kulturala

Escola Tècnica Superior d'Enginyeries Industrial i Aeronàutica de Terrassa-k(ETSEIAT) UPC-ko Terrassako kanpusean aste kulturala antolatu du. Maiatzaren 8an izango da ekitaldi nagusia:

Mahai-ingurua: bakea eta elkarbizitza Euskadin. Zer egin dezakegu unibertsitateetako kideek?12.15ean ETSEIATeko areto nagusian (c/ Colom 11.Terrassa). Bertan arituko dira: Salvador Cardús, soziologoa, “Escola de la Cultura per la Pau”-ko zuzendaria, Vicenç Fisas, eta “Comissió de la Dignitat”-eko koordinatzaile eta Deustuko unibertsitateko irakasle ohi Toni Strubell.

Herri Kirolak. 13:30ean ETSEIAT-eko aparkalekuan (c/Colom 11. Terrassa)

La pelota Vasca, la piel contra la piedra dokumentala, 15:00etan ETSEIAT-eko areto nagusian (c/Colom 11. Terrassa)

“Art party”, erakusketa

Erakusketa honekin, Marta Maruganek Gracia Auzoko Asturias kalean amaiera emango dio Euskal Artearen lehen zikloari (maiatzaren 15 arte). Ekimen honen helburua euskal arte garaikidea Bartzelonara hurbiltzea da, bi kulturen arteko lotura indartzeko. Art Party konposizio kromatikoa abstraktua da, alde batetik margotuak eta bestetik imaneztatuak dauden 23 DM plakak osatzen dutena.

Korrika 07ren argazki erakusketa

Apirilaren 14tik 24ra Korrikaren 15. edizioaren gaineko ekimen ugari egin genituen. Egingandako lanak bere furiatuak eman ditu, eta, zalantzarik gabe, euskararen aldeko jai handi honek Bartzelonan leku duina izan du. Buletin honen bidez, eskertu egin nahi dugu hau guztia egia izan dadin gogor aritu diren euskaltzale guztien lana eta hitzaldi, lehiaketa eta, oro har, ekimen guztietara bertaratu den jendea.

Korrikan bertan izan zinetenontzat eta egon ezin izan zenutenontzat ikusgai dago Euskal Etxean Korrika Bartzelonan izan denaren berri iruditan ematen duen argazki erakusketa.

Afari Soziala

Xanglot taldeak aurreko afarian eskaini zigun alaitasunaren ondoren, lehendik jakingo duzuen moduan, maiatzeko afari sozialak Literaldiari amaiera emango dio. Horretarako, bertsolariak eta trikitilariak etorriko dira.

Menua: Piperrak bakailuz barrubeteak.

Albondigak saltsan

Pantxineta

Kafea eta patxarana

Afaria hilaren 18an, ostiralarekin izango da 21:00etan Euskal Etxean.

Afariaren prezioa 10 €-koa izango da bazkideentzat eta 14 €-koa bazkide ez direnentzat. Afarira joateko beharrezkoa da izena aldeztu aurretik ematea maiatzaren 16a baino lehen idazkarizatutik pasata edo 93.310.22.00 telefono zenbakira deituta.

Euskal Etxeko dantza taldearen emanaldiak

Granollers egindakoaz gain, gure dantza taldeak apirilaren 22an Gracian egindako “Esbart Lluís Mollet”-en 50. urteurrenean hartu zuen parte. Astebete geroago, Sans auzoan egindako beste ekitaldi batean ere izan zen.

*Ekitaldiren batek aldaketaren bat izan dezake bere ordutegian, lekuan, edo edukian. Horregatik, gure egitaraua Interneteko helbide hauetan jarraitzea iradokitzen dizuegu: www.euskaletxeak.org eta blog.euskaletxeak.org